

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2019/11/27

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun batek kexa adierazi du Egogaineko bankuek iaz bezala jarraitzen dutelako.	Bankuak aldatu dira.
Zerbitzuak	Salatu du baldosa solteak daudela Untzagako Jubilatuen Egoitzaren ondoko zebra-bidean.	Otsailean konpondu ziren baldosa horiek.
Zerbitzuak	Bizilagun batek jakinarazi du baldosa solteak daudela Bidebarrieta 3 zenbakiaren parean, bai eta San Andres elizako espaloia kanpoaldean ere.	Martxoan konpondu ziren baldosa horiek.
Obrak	Galdetu du ea Bidebarrietan zebra-bide gehiago goratu behar diren.	Ez dago aurreikusita.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Untzagako markesinaren ondoko paperontzia kentzeko.	Paperontzia erabiltzen da, eta, beraz, ez da kenduko. Mankomunitateari agindua eman zaio sarriagotan husteko.
Obrak/Alkatetza	Egogaineko bizilagun batek galdetu du ea Udalak neurriak hartu behar dituen trenbideko zarata gutxitzeko, batez ere, bihurtzearen aldean.	Azterlan bat egin da zarata gutxitzeko hartu beharreko neurriei buruz, eta bilera bat egingo da Euskal Trenbide Sarearekin.
Zerbitzuak	Kexa adierazi du, San Andres Egoitzaren parean bi kutxatila ez daudelako ondo finkatuta.	Kutxatila horien arazoa behin eta berriz azaldu da; hala ere, lana amaituta dago, eta ez dago jasota arazorik dagoenik.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2019/11/27

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Salatu du ALFAk isurtzen duen keak oso usain txarra duela.	Hirigintza eta Ingurumen Saitetik lan egin dute Alfa inguruko ingurumen-kalitatea hobetzeko. Alfa eraikinean dauden enpresek eragindako soinu-maila neurtu da, eta, beharrezkoa izan denean, neurriak hartzeko agindu zaie, zehazki soinu-foku batetik eratorritako zarata gutxitzeko. Keari dagokionez, inguru horretako keen jarraipena egin zen, eta ez zen irregulartasunik aurkitu ke hori sor zezaketen tximinietan (egun ke-igorle izan daitezkeen hiru enpresak alta emanda dituzte kutsatzaile izan daitezkeen fokuak Eusko Jaurlaritzan, eta betetzen dute dagokien Araudia). Hala ere, airearen kalitatearen jarraipen handiagoa egiteko, kalitate-adierazleen bi neurgailu jarri dira Amaña inguruan. Datu horiek eskuragarri daude udal webgunean.
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Kexa adierazi du Egogaineko arkupeak, 22-24-26 zenbakietan, zikin egoten direlako asteburuero.	Gune hori 7 egunetatik seitan egiten da, astelehenetik larunbatera.
Alkatetza	Galdetu du ea zer egoeratan dauden Aurrekontu Parte-hartzaileak.	Prozeduraren emaitza ez zen espero zena bezain arrakastatsua izan eta bertan behera utzi zuen saila arduradunak.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2019/11/27

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Eskatu du erdiguneko peatonalizazioa iraunkorra izatea.	Erdigunea modu iraunkorren oinezkoentzako gune egiteak arazoak eragiten ditu. Batetik, inguru horretako establezimenduetara zamalanak eta gestioak egitera joan behar duten ibilgailuak daude, eta, bestetik Donostiarako norabidean doazen autobusak saihesbidetik ibili beharko lirateke, eta behealdeko geltokiak kendu egingo lirateke: Bidebarrieta, Azitain. Gainera, beste toki batzuetako zirkulazioa, hala nola, Ubitxa, Txaltxazelai, Migel Aginaga, Errekatxu, Arane, Bistaeder e Ifarkale kaleetako nabarmen handituko litzateke eta arazo gehiago eragingo lituzke. Haien konfigurazioaren dela-eta, kale horiek ez dira alternatiba egokia hirugarren kategoriako ibilgailuentzat.
Zerbitzuak	Isasi 4 zenbakiko auzokide batek salatu du Eibar zikin dagoela.	Herria astean 5 eta 6 egunetan garbitzen da, baita 7 egunetan ere erdiguneko eta Urkizuko leku batzuetan. Kale guztiak astero garbitzen dira. Nolanahi ere, herritar-kontzientziaren arazo bat da, eta zibismo kontu bat.
Hirigintza	Kexa adierazi du oso berdegune gutxi daudelako herrian.	
Zerbitzuak	Kexa adierazi du Elgeta eta Zezenbide kaleen arteko eskailera mekanikoak hondatuta daudelako eta ez delako matxuraren berri ematen duen kartelik jarri.	Arazoa konpondu zen eta berriz ere gogorarazi zitzaion Thyssen-i derrigorrezkoa dela eskailerak seinalezatzea eta kartelak jartzea konponketa-amaiera iragarritz.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2019/11/27

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du Isasi kalean zamalanetarako guneak bikoiztu egin direla, ez direlako ezabatu Astelenaren obren ondorioz sortutakoak . Halaber, salatu du gaizki erabiltzen direla halako aparkalekuak, ibilgailuak 15 minututik gora egoten direlako aparkatuta.	Isasi kaleko zamalanetarako dauden guneak behar direnak dira. Toki horietan behar ez bezala aparkatzen duten ibilgailuei dagokienez, halako kasu bat antzematen den bakoitzean, salaketa jartzen da, eta, beharrezkoa bada, garabiarekin erretiratzen da ibilgailua.
Udaltzaingoa	Aparkatzeko erraztasun gehiago eskatu du.	Eibarko konfigurazioaren erruz, aparkatzeko arazoa ez da konpontzen erraza. Errebalen egiten ari diren edo Blas Etxebarrian egingo diren garajeek eta parkingek arazoa arintzen lagun dezakete.
Udaltzaingoa	Galdetu du ea martxan jarri behar den OTA sistema Isasin, marra urdinak pintatuta daudelako; baina artean ez da abian jarri.	Aparkatze-denbora mugatua arautzeko Ordenantzan beharrezkoak diren aldaketak egiten ari dira, TAO sistema ahalik eta lasterren martxan jartzeko.
Udaltzaingoa	Salatu du etengabe daudela kotxeak aparkatuta bigarren ilaran.	Normalean bigarren lerroan aparkatzen duten ibilgailuek gestio puntualen bat egiteko lagatzen dute kotxea. Eragozpenak antzematen direnean, salaketa egin, eta, hala behar izanez gero, garabiarekin erretiratzen da kotxea.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek uste du egoiliarren sistema ezarri beharko litzatekeela erdigunean.	Egoiliarrendako sistema bat jartzeak ekarriko luke aparkatzeko toki asko egoiliarrek soilik okupatuko lituzketela, eta ez litzaieke aukerarik emango inguru

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2019/11/27

Saila	Laburpena	
		horretan bizi ez diren herritarrei. Egokiagotzat jotzen da gaur egun kale batzuetan dagoen errotazio-sistema.
Obrak	Galdetu du noiz egin behar diren igogailuaren geraleku berriaren obrak San Juan 9 zenbakian.	Egin dira dagoeneko.
Obrak	Salatu du San Juan zeharkalearen (trenbide azpian) egoera txarra.	Aztertu egingo da datozen asfaltatze-proiektuetarako.
Udaltzaingoa	Kexa adierazi du Ardantzako parkea zikin egoten delako asteburuero. Eskatu du Udaltzaingoa gehiago ibiltzea handik botiloi-lekuak kontrolatzeko.	Botiloi-tokiak sarritan gainbegiratzen dira, bereziki asteburuetan. Zikinkeriarri dagokionez, gehiago da kontzientziario eta heziketa kontu bat poliziaren kontu bat baino.
Hirigintza Udaltzaingoa	/ Galdetu du terrazen eta ordutegien araudiari buruz. Esan du Chic tabernak askotan lagatzen dituela ateak zabalik, eta mahaiak jarrita lagatzen dituela.	Ostalaritza-establezimenduetako ateak itxita egon behar dira, barruko zarata kanpora ez ateratzeko. Establezimendu batek arau hori ez duela betetzen antzeman bezain laster, bidezkoa den zehapen-espeditentari ekiten zaio. Mahaiak jasota egon behar dira establezimendua itxita dagoenean.
Udaltzaingoa	Ifarkaleko bizilagun batek salatu du larunbat eta igande goizaldean jendeak zarata handia egiten duela, eta etxebizitza batzuetako txirrin-joka ere ibiltzen direla.	Erdigunean dagoen kale bat izanik, eta gaueko aisialdiaz gozatzen duen jendearen pasabide, batzuetan jendeak ez du errespetatzen bizilagunen atsedena. Udaltzaingoa saiatzen dira ahalik eta eragozpen gutxien eragin daitezen lortzen.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2019/11/27

Saila	Laburpena	
Obrak	Bizilagun batek ohartarazi du Berdintasunaren pasealekuko zorua altxatzen ari dela.	Konpondu zen.
Zerbitzuak	Salatu du Isasi eta Fermín Calbetón aldean kutxatilak oso labainkor daudela.	Erabaki zen irristatzearen aurkako tratamendua egitea, labainkorren dauden kutxatiletan.
Alkatetza	Bizilagun batek eskatu du lehenago argitaratzeko auzo-bileren aktak, eta lehenago lan egiten hasteko herritarren eskaeretan.	Proposamenak argitaratzen dira dagokion sailak erantzunak bidali ahala. Joan den urtera arte, lehen erantzunak ekainean argitaratu izan dira. Dena den, nahiz eta epe laburrean erantzun idatzirik eman ez, egin eta gauzatu daitezkeen lanak egiten dira.
Zerbitzuak	Bizilagun batek uste du, Untzagan dauden lur azpiko hiru edukiontzietatik, nahikoa izango litzatekeela bat egotea. Gainera, jendeak edozein hondakin botatzen du edukiontzietan.	Leku horretako lur azpiko edukiontziak erretiratu egin dira.
Udaltzaingoa	Untzagako bizilagun batek salatu du ezen, batez ere asteburuetan, bizilagunak arkupeetatik irten behar direla beren etxebizitzetara sartzeko, jende pila bat egoten delako bertan.	Ostalaritza-establezimenduak dituen aisialdiko gunek bat izateak jendea pilatzea eragiten du, batez ere, asteburuetan. Hitz egin da establezimenduaren arduradunarekin arazoari irtenbidea ematen saiatzeko.
Udaltzaingoa	Eskatu du Udaltzaingoa neurketak egitea Udaletxetik eta leihoak itxita, Untzagan egiten diren kontzertuen dezibelio-maila zehazteko.	Untzagan egiten diren kontzertuak Udalak baimentzen ditu eta baimenean zehazten diren baldintza batzuk bete behar dituzte.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2019/11/27

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Erratz-makina elektrikoak ezartzea eskatzen du.	Mankomunitateak ez du aurreikusi erratz-makina elektrikorik erosterik.
Obrak	Untzagako dorreko bizilagun batek salatu du eskaileretatik sartzen diren ur libreek arazoak sortzen dizkiotela eraikinaren egiturari.	Saneamendu-sarea konpondu egin zen. Egiatzatu egingo dira zoladuraren pendizak eta, beharrezkoa balitz, aldatuko dira.
Udaltzaingoa	Egogain 1 zenbakiko bizilagun batek salatu du garajetik irtetean beti egoten dela motor bat aparkatuta.	Trafiko-ordenantzak baimendu egiten du motorrak espaloietan aparkatzea, betiere oinezkoen pasabidea edo establezimenduetan sartzea eragozten ez badute. Motorrak garajerako sarbidea oztopatzen badu, Udaltzaingoarekin harremanetan jar daiteke.
Udaltzaingoa	Salatu du Txoko tabernako izkinan beti daudela aparkatuta banatzaileen ibilgailuak, eta traba egiten dietela oinezkoei eta ibilgailuei.	Gune horretan aparkatzea oso kontu puntuala da, zamalanetarako toki bat dagoelako banaketa-lanak egiten dituzten ibilgailuentzat.
Hirigintza	Bizilagun batek salatu du Egogain 1eko orubearen egoera. Esan du Udalak jabeak beharko beharko lituzkeela garbi dezaten.	
Zerbitzuak	Kexa azaldu du Debabarreneko Mankomunitatearen webguneko birziklapen-datuak ez direlako eguneratzen.	Kontu hori Mankomunitateari dagokio.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2019/11/27

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Salatu du Urkizuko dorreetako errefusako lur azpiko edukiontzien ahoak handiegiak direla.	Mankomunitateak edukiontzien egoeraren txosten bat egin du, aztertzeko zain dagoena. Azterketa horren emaitzak dioena egingo da.
Zerbitzuak	Kexa azaldu du Txaltxazelaira igotzeko oinezkoen eskailerak oso zikin daudelako.	Abisua eman zitzaion Mankomunitateari kontuan izan dezan.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek esan du Udaltzaingoa ez duela ezer egiten tabernetako ordutegiak errespetatzen ez direnean edo tabernetako ateak ixten ez direnean.	Halako lege-hauste bat antzematen den bakoitzean, akta edo txosten bat egiten da bidezkoa den zehapen-espeditari hasiera emateko.
Zerbitzuak	Bizilagun batek kexa azaldu du Untzagako paperaren edukiontzia hutsik egon arrear kaxak kanpoan lagatzen direlako.	Mankomunitateak edukiontzien egoeraren txosten bat egin du, aztertzeko zain dagoena. Azterketa horren emaitzak dioena egingo da.
Udaltzaingoa	Salatu du Urkizuko autobus-geltokian kotxeak egoten direla aparkatuta.	Behar ez bezala aparkatutako ibilgailuak antzematen diren bakoitzean, salaketa jarri eta, beharrezkoa bada, erretiratu egiten dira garabiarekin.
Obrak	Kexa azaldu du Bidebarrieta eta Julián Etxeberriaren arteko bihurtunean dagoen jardina beti dagoelako zaborrez betea.	Konpondu egingo da Julian Etxeberria kalean egingo den zolaketa berriarekin.
Udaltzaingoa	Kexa adierazi du kaleko jardueren zaratagatik.	Erdigunean dauden jarduera eta aisialdien erruz, zarata ere handiagoa da herriko beste leku batzuetan baino.



# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2019/11/27

Saila

Laburpena

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2019/11/27

Saila

Laburpena

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2019/11/27

Saila

Laburpena

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

DATA: 2019/11/27

Saila

Laburpena